



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Garamendik uste dau Etxebarriko Udalak datozen asteetan bere jarrera aldatu eta Galdakao eta metroa lotzen dituan A3932 lineako autobusari igaroten itxiko deusala

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 9an.

Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako diputatuak, Batzar Nagusietan egin dauen agerraldian, Etxebarriko Udalari jakinarazo deutso gaur datorren urtarrilaren 23ra arteko epea daukela Aldundiaren Gobernu Kontseiluak joan dan abenduaren 23an hartu eban akordioa onartzeko. Akordio horretan agindua emoten jako, Galdakao eta Etxebarrin dagoan metroaren geltokia lotzen dituan Bizkaibusen A3932 lineari igaroten ez ixteko erabagia bertan behera itxi daian. Erabagi horren ondorioz, joan dan abenduaren 14an Bizkaibuseko emakida barriak indarrean sartu ostean zerbitzu hori martxan jarri zanetik erabiltzaileak metroaren geltokitik “700 metrora” geratu behar dira. Etxebarriko Udalaren erabagia “ez legezkoa” dala esan ostean, Aldundiko arduradunak, administrazio-azibideko helegitea jartea ez dala beharrezkoa izango “uste dauela” adierazo dau. Helegite hori izapidetzeko epea datorren otsailaren 12an bukatzen da.

Garamendik adierazo dauenez, Aldundiko atea “zabalik dago” Etxebarriko Foru Aldundiaren esku dagozan autobusei igarotea debekauz eragin dauen “arazoa konpontzeko”, baina jakinarazo dau bere sailak “ezin dauela” “interes publiko orokorra eta erakundeen eskumenak zapaltzen dituan” udal jarduketarik onartu. Bere sailak agindu dituan txosten bik, bat juridikoa eta bestea teknikoa, “berretsi” egiten dabe –bere berbetan– Aldundiak legea bete dauela, eta bertan adierazoten danez, udalerrien arteko lineen ibilpideak ezarteko eskumena Foru Aldundiarena da. Udalek gai horretan daukien eskumena udalerrri barrukoa “bakarrik da” eta, ondorioz, txosten horreetan oinarrituta, Udalak hartutako erabagia “zuzenbidez guztiz baliobakoa” dala esan dau, eskumenik ez daukan erakunde batek emon dauelako.

Diputatuak eskaerea egin deutso Udalari, mesederik inori ekarten ez deusan egoerari buruz “gogoetea” egin daian. Lineak “hobetu” egiten ditu Etxebarriko Galdakaogaz, San Esteban auzoagaz, ospitaleagaz eta Galdakaoko anbulatorioagaz dituan loturak. A3932 linearen azkenengo geralekua Nerbioi kalean egotea dakarren alde bakarreko erabagia “oso kaltegarria da zerbitzuaren funtzionamenturako eta, ondorioz, interes publikorako” eta gehiago oraindino kontuan izaten bada Etxebarriko udal lantzadereak ibilpide hori egiten dauela.

Batzarretako taldeek euren kexea adierazo dabe, Aldundiak arazoa “ezkutu egin dauelako”. Etxebarriko Udalaren erabagia “aurretik be ezagutzen eban”. PSE-EE taldeko Joaquín Colmenerok konponbidea “lehenago” bilatu behar zala esan dau. Linea horrek “ezin dau une honetan bizi dauen egoeran jarraitu”, gehitu dau gaur lehen aldiz PP-ko bozeroale barri moduan aritu dan Jesús Isasik. EH Bilduko Aitor Torrek konponbidea “bide juridikotik” heldu behar izatea tristeza dala esan dau, “horrek argi eta garbi erakusten dauelako EAJ-PNV-k erabilten dauen estilo liburua, bere kolore politikoa ez daukien udalakaz dituan arazoak lantzeko orduan”. Etxebarriko “errazoia dauka”, “lantzadera” horrek bukaerako data euki behar dauela esatean, Galdakaora doan metroaren 5. linea eregitagaz lotuta badago. Proiektu hori “geldik” dago,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

koalizino abertzaleko bozeroaleak esan dauenez.

Batzarretako EAJ-PNV taldeak, barriz, “erreserbarik barik” defendidu dau Aldundiaren jarrera, Jon Larrea batzarkidearen berbetan “legeagaz bat etorriz” aritu dalako, bere eretxiz “legez kanpoko” dan udalaren jarduketaren aurrean.

“NORMALTASUN OSOA” BIZKAIBUS BARRIA MARTXAN JARTEAN

Garamendi PP-k eskatuta be agertu da Bizkaiko Batzarretako Herri Lan eta Garraioetako batzordean, joan dan abenduaren 14an hasi ziran Bizkaibuseko emakida barrien lehenengo balantzea egiteko. “Orokorrean” 5 emakida barriak “normaltasun osoagaz” hasi dira beharrean, eta salbuespen bakarra Galdakao-Etxebarriko Metroa linea izan da, esan dau, laburbilduz.

Aldundiko arduradunak esan dauenez, zerbitzu barriari buruzko balorazinoa egiteko eskaerea “lar arin” egin da, “100 linea” eta “285 autobus” martxan jarri ziranetik “27” egun baino ez diralako bete. Horreei guztiei gau bakar batean aldatu behar izan jaken softwarea eta informazio guztia leku batetik bestera pasau. “Oraindino goiz da balorazino zehatza eta zuzena egiteko”, esan dau, “mundu guztiari moduan”, ohikoak diran “ehun egunak” emoteko eskatu aurretik, “gauzak zelan funtzionetan doazan ikusi ahal izateko”. Kritikau dauenez, agerraldi eskaerea, zerbitzu barriak hasi eta 48 orduara erregistrau zan.

Halanda be, Garamendik zerbitzua eskini dan lehenengo aste honeetan jasotako kexak edo iradokizunak zehaztu ditu. Emakida guztietan eragina daukan arazo tekniko moduan, telekomunikazioen operadoreagaz erlasionautako arazo bat hauteman da, “ekipo batek modu sistematikoan atzera botaten dauen” ibilpide barria sartu dalako. Aurreikuspenak beteten badira, arazo hori “ahalik eta arinen” konponduko da.

Horren ostean, diputatu andreak ibilpidea egin dau emakida guztietatik. Nerbioi-Arratia-Durangaldean, Aldundia “ordutegi doikuntzak” ari da aztertzen Orozkon, eta, horrez gain, Arratiako Mankomunidadeak, A3917 eta A3925 lineek barriro be Galdakaoko urigunea zeharkatu daien egin dauen eskaerea be aztertzen dabil.

Ezkerraldea-Meatzaldea emakidari jagokonez, Herri Lan eta Garraioetako saila, Bilbo-Santurtzi A3115 linearen maiztasuna aldatzeko, autobusak, 30 minutuz behin zirkulau beharrean 20 minutuz behin zirkulau daien egin dan eskaerea eta Barakaldoko Urban auzoaren eta Sestao erdialdearen arteko loturak berreskuratzeko egin dana aztertzen ari da.

Diputatu andreak adierazo dauenez, Enkarterrin, bertako udal batzuen iradokizunak jaso dira, Turtziozekoarena, adibidez, geraleku barriak jarteko. Eta Txorierrri-Mungialdea emakidan, Mankomunidadeak eskaerea egin dau, A-3223 linea Astintzen (Derio) geratu daiten. Jarduketa bi horreek aztertzen ari dira.

Busturialdea-Lea Artibai lineari jagokonez, Garamendik azpimarratu dau bere saila doikuntza neurriak ari dala aztertzen Bilbo eta Lekeitio lotzen dituen A-3523 eta A-3513 lineetan. Horrez gain, Bilbo-Amorebieta-Gernika A-3514 linea Boroan geratzeko aukerea be aztertzen dabil.

Batzarretako taldeek “arintasuna” eskatu deutse diputatu andreari, arazoak “hainbat arinen” konpondu daitezkan. EH Bilduk eskari zehatza egin dau, Aldundiak markesinetan dagoan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

informazio sistema eguneratu daian. Unidateen igaroteari buruz SMS bitartez eskintzen dan informazio sistemeak “ez dau funtzionetan”, Aitor Torrek esan dauenez. Diputatu andreak erantzun dauenez, geralekuetako informazioa “pixkanaka” joan da jarten, eta “aste honetan bukatuko da eguneratzeko prozesu osoa”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Garamendi "confía" en que el Ayuntamiento de Etxebarri rectifique en las próximas semanas y permita el paso del bus de la línea A3932 que comunica Galdakao con el metro

Bilbao, a 9 de enero de 2015

La diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha advertido hoy al Ayuntamiento de Etxebarri, en una comparecencia en Juntas Generales, que tiene de plazo hasta el 23 de enero para aceptar el acuerdo del Consejo de Gobierno de la Diputación, de 23 de diciembre, que le insta a anular la decisión de negar el paso a la línea de Bizkaibus A3932 que comunica Galdakao y la estación del metro de Etxebarri, dejando a los usuarios a “700 metros” de la parada del suburbano desde que este servicio se puso en marcha el pasado 14 de diciembre con la entrada en vigor de las nuevas concesiones de Bizkaibus. Tras tachar la decisión de Etxebarri de “ilegal”, la responsable foral “confía” en no tener que llegar a interponer un recurso contencioso-administrativo cuyo plazo para tramitarlo expira el próximo 12 de febrero.

Garamendi ha señalado que la puerta de la Diputación “está abierta para resolver el problema”, causado por la prohibición de Etxebarri de impedir el paso de los autobuses forales, aunque ha advertido que su departamento “no puede admitir” una actuación municipal que “socaba el interés público general y las competencias de las diferentes instituciones”. Dos informes encargados por su departamento, uno jurídico y otro técnico, “corroboran” –según ella- que la Diputación se ha ajustado a la legalidad concluyendo, entre otras cosas, que la competencia para fijar los itinerarios de las líneas interurbanas corresponde a la Institución foral. La competencia municipal en este asunto “se refiere exclusivamente” al transporte urbano por lo que, en base a estos informes, ha tachado la decisión municipal de “nula de pleno derecho” al haberse dictado por un órgano que carece de competencia.

La diputada ha pedido al ayuntamiento que “reflexione” sobre una situación que no beneficia a nadie. La línea “mejora” las conexiones de Etxebarri con Galdakao, el barrio de San Esteban, el hospital, y el ambulatorio de Galdakao. La decisión unilateral de que la última parada de la A3932 se sitúe en la calle Nerbioi “supone un grave perjuicio para el funcionamiento del servicio y, por ende, del interés público”, más si cabe si se tiene en cuenta que por ese mismo recorrido circula la lanzadera municipal de Etxebarri.

Los grupos junteros se han quejado de que la Diputación “ha ocultado” el problema. “Sabido de antemano” la decisión del ayuntamiento de Etxebarri. Joaquín Colmenero, del PSE-EE, ha lamentado que la solución no viniera “antes”. Esta línea “no puede continuar con la situación actual”, ha añadido, Jesús Isasi, quien se ha estrenado hoy como nuevo portavoz del PP en Juntas Generales. Por su parte, Aitor Torre, de EH Bildu, ha lamentado que la solución tenga que llegar “de forma jurídica”, lo que “define el libro de estilo del PNV a la hora de abordar problemas con ayuntamientos que no son de su color político”. Etxebarri “tiene razón” en que esta “lanzadera” debe tener fecha de finalización si va unida a la materialización de la Línea 5 a Galdakao, proyecto que está “parado”, según el portavoz de la coalición abertzale.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por contra, el grupo juntero PNV ha defendido “sin reservas” a la Diputación que ha actuado , según su apoderado Jon Larrea, “de acuerdo a la ley” frente a una actuación municipal que ha considerado “ilegal”.

“NORMALIDAD ABSOLUTA” EN LA PUESTA EN MARCHA DEL NUEVO BIZKAIBUS

Garamendi comparecía también en la comisión de Obras Públicas y Transporte de la Cámara vizcaína, en este caso a petición del PP, para hacer un primer balance de las nuevas concesiones de Bizkaibus iniciadas el pasado 14 de diciembre. “De forma genérica”, las 5 nuevas concesiones comenzaron “con normalidad absoluta”, con la “única excepción” de la línea Galdakao-Metro Etxebarri, ha resumido.

La responsable foral se ha quejado de que la petición para realizar una valoración del nuevo servicio llega “pronto”, ya que apenas se han cumplido “27 días” desde que se pusieran en marcha “100 líneas” y “285 autobuses” a los que hubo que cambiar el software y migrar la información informática en una noche. “Aún es pronto para realizar una valoración concreta y certera”, ha dicho, antes de pedir que se le conceda “como a todo el mundo” los correspondientes “cien días para ver cómo van funcionando las cosas”, criticando que la petición de comparecencia se registrara 48 horas después de iniciarse los nuevos servicios.

Aún así, Garamendi ha detallado las quejas o sugerencias que han recibido en estas primeras semanas de servicio. Como incidencia técnica que afecta a todas las concesiones, se ha detectado un problema relacionado con el operador de telecomunicaciones por la inclusión de una nueva ruta que era “rechazada sistemáticamente por un equipo”, incidencia que espera se solucione “lo antes posible”.

La diputada ha hecho después un recorrido por las distintas concesiones. En la Nerbioi-Arratia-Durangaldea, la Diputación está estudiando “ajustes horarios” en Orozko y la petición de la Mancomunidad de Arratia para que las líneas A3917 y A3925 vuelvan a atravesar el casco urbano de Galdakao.

En la concesión Ezkerraldea-Meatzaldea, el departamento de Obras Públicas y Transportes está analizando, tanto la solicitud para cambiar la frecuencia de la línea A3115 Bilbao-Santurtzi para que los autobuses circulen cada 20 minutos en lugar de los 30 minutos actuales como para recuperar las conexiones del barrio Urban de Barakaldo con el centro de Sestao.

En Enkarterri, la diputada ha señalado que se han recibido sugerencias de algunos ayuntamientos de la zona, como Turtzios, para la incorporación de nuevas paradas. Y en la concesión Txorierrri-Mungialdea, la Mancomunidad ha pedido que la línea A-3223 pare en Astintze (Derio). Ambas actuaciones se están analizando.

Por su parte, en Busturialdea-Lea Artibai, Garamendi ha destacado que su departamento ya está valorando medidas de ajuste en la A-3523 y en la A-3513, líneas que comunican Bilbao con Lekeitio, y la posibilidad de que la A-3514 Bilbao-Amorebieta-Gernika realice parada en Boroa.

Los grupos junteros han pedido a la diputada “celeridad” para que los problemas se solucionen “lo antes posible”. EH Bildu ha reclamado, en concreto, que la Diputación actualice la información de las marquesinas. El sistema de información del paso de unidades por SMS “no



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

funciona”, según Aitor Torre. La diputada ha contestado que la información de las paradas se ha ido poniendo “paulatinamente” y que “esta semana se acabará de actualizar”.